


ZAKILIXUT

© Olariagak



Zer bilakatu da Larraldia?

■ Garai batez ospe handikoa izan zen gaztelua abandonaturik eta andeaturik dago

MILAFRANGAKO xoko batean, oihan baten bazterrean, pentze baten gainaldean, toki ezin lasaiagoan, triste bezain ederrik dago Larraldia gaztelua, oraino jaun eta jabe balitz bezala. Hila dirudi, ordea. Leihotako berina gehienak hautsiak, etxe aitzina belarrak eta sasiak hartua, paretak huntz-osto eihartuak estaliak, pentzean metro erdiko belarra, etxe barnean dena suntsitua, XVIII. mendeko supazter guztiak ebatsiak, 80ko hamarkadako aldizkariak barreiatuak... Garai batez bizi izan zen gaztelu baten lekuko dira horiek guztiak.

Eta hain aspaldi ez dela oraino, ospe handiko hotel bat aterpetzen zuten paret eder horiek, lau izarrekoa, eta jabeak XVIII. mendeko altzariekin bete zuen gaztelua, gunea historiaren lekuko utziz. Parisko jende aberats ugari eta aktore andana bat ibili zen 50eko hamarkadatik 80koaren hasieraraino. Bertan iragaiten da *La Banaquiere* filma, Romy Schneiderrakin. Baina Royal Moceau hotel ugariaren jabe zen taldea errekaratu zen eta Milafrangarako zituena proiektu handiei ezin izan zien jarraipenik eman. Lur gehiago eta ondoko muino bat erosi zituena, garai hartan modan zegoen golf zelai baten egiteko asmoare-



ANGELA MEJIAS

Garai batean ospe handikoa izan zen gaztelua abandonaturik dago egun.

kin. Ez zuen holakorik egin, eta 80ko hamarkadan gelditu zen gaztelua hotel izatetik. 1997. urtean bertako altzariak enkantean saldu ziren, eta orain, egoitza eta eremuak likidatzaileen eskuetan dira, erosleak aurkitu bitartean. Hoteleko aktibitatea gelditu zelarik bazterrak pixka bat entretenituak baziren ere, azken bi urteetan dena utzia izan da, eta naturak egin du bere jokoa. Berrehun urtez ohore handikoa izan gunea bi urtez harri meta bat baizik ez da bilakatu. Bankariaren ixtorioa kondatzeko orde, Dracularen filma egiteko hobe da.

Elkarte bat sortu da

Baina Milafrangako herritarrek gaztelu zoragarri hori ez dute galtzera utzi nahi. Elkarte bat muntatu berria dute ondarean toki garrantzitsua duen eraikuntza horri etorkizun dirdiratsuago bat eskaini nahiz. Elkarteak lan egin du Larraldia gaztelua monu-

mentu historikoetan sailkatua izan dadin. Gune horri buruzko dokumentuak bilduz -testuak; grafikoak; argazkiak, berrikikoak nahiz aspaldikoak- erakusketa baten antolatzeko xedea dute. Epe luzera, eremuari buruzko ikerketa historikoa egin nahi dute, liburu baten argitaratzeko.

Eeremu horrek historia luzea dauka gibelean. Gaztelua 1774an eraiki bazen ere, XII. mendean agertu ziren eremuari buruzko lehen xehetasunak. Eta bada zerbait zerbait gertaturik geroztik...

Zer izanen da eremuaren etorkizuna? Nork erosiko du eta zer egingen du? Ondareari eta ingurugiroari atxikia bada, erakusketa bat eta naturgune bat egin dezake. Diru gose baldin bada, golf handi bat eraiki dezake... Ageriko, bigarren bizirik baldin badu, nolakoa izanen duen...

Eneko Bidegain

MILAFRANGA

kasu!

► Umeen %15ek pixa egiten dute ohean

Gipuzkoako bost urteko umeen %15ek gaueko enuresia dute, pixa egiten dute ohean, Gipuzkoako Ospitale kanpoko Pediatria Elkar-teak antolatu duen mahai-inguru batean azaldu dute-nez. 18 urtekoen artean, kopurua %1era jaisten da.

► Maitzaren 1ean, manifestaziorik ez

Ceutako UGT eta CCOO sindikatuak ez dute manifestaziorik antolatuko Maiatzaren 1ean langileen eguna ospatzeko, «oso langile gutxi joango liratekeelako». UGT eta CCOOek gogoratu dute bataio garaia dela eta jaieguna izanik oso langile gutxi mobilizatuko liratekeela.



NAMAS BHOJANI

Jainko bitxia gurtziz.

► Koko azalekin egindako jainkoa

Ganapatiko idoloa, edo Ganesha izenez ere ezagutzen den Indiako jainkoa aurkeztu zuten atzo Bangaloreko merkatuan. Jainkoa 5.000 koko azalez egin dute merkatuan ikusgai jartzeko.

Milafrangako herritarrek gaztelua ez dute galtzera utzi nahi. Elkarte bat muntatu dute eraikuntzari etorkizun dirdiratsuago bat eskaini nahiz